

ARGIA

Alda Facio

"Feminismoak bizitza salbatu dit"

"... gehiegi luzatzen diren salbuespen egoeratarako emergentziazko planak".

SUSTRAI COLINA 2015eko maiatzaren 17a



Dani Blanco

New York. 1960ko hamarkada bukaera. Emakumeen eskubideen aldeko manifestazioak. Zu.

Mugimendu sineskor bezain idealista bateko kide apasionatua nintzen eta mundua aldatzera gindoazen. Ez ginen haize-alde ari, erakunde askok gutxiesten gintuzten, eraikuntzako langileek jipoitzen... Baina aferak aurrera soilik egin zezakeelakoan geunden. Azken hamarkadek, ordea, atzeraldiak mehatxuka dauzkagula irakatsi digute, gutxi behar dela lorpenak komunetik behera

botatzeko. Zentzu horretan, orduko feminismoa argiagoa zen, gardenagoa. Mugimenduentzako oinarritzko lanabesak izango ziren feminismoen teorien azterketa eta transmisioa genituen xede, ez egileek bakarrik ulertzen dituzten egungo ikerketa elitistak. Hanka-sartzea izan da teoria hari mataza askagaitz bihurtzeraino akademizatzea. Edozein emakumek, unibertsitatea inoiz zapaldu ez duten etxeko andreak barne, euren bizitzetan gertatzen ari dena ulertu eta aldatzeko giltzak ematen dituzten lanak behar ditugu.

Giltzak atea zabaldu eta aurrera egiteko dira, motorra martxan jarri eta abiatzeko.

Oraindik ez gaude aurrerapausoen garaian, "atzera pausorik ez!" aroan baizik. Are gehiago, egiteke hainbeste edukita ia ezinezkoak dira atzerapausoak. Zinez arriskutsutzat gauzkatenean etorriko dira erasoak eta atzeraldiak. Orain arte ez gara inorentzat arriskutsuak izan. Orain aldiz, NBen estatu batzuek argi eta garbi esaten dute ez dutela gizon-emakumeen arteko berdintasunean sinesten, emakumeek gizonezkoen meneko behar dutela. Gero eta estatu gehiagok azpimarratzen dute pertsona batek agindu behar duela familian, pertsona batek komunitatean, pertsona batek herrian, pertsona batek estatuan... Eta pertsona batek diotenean uler bedi gizon batek. Orain gutxi leporatu zidan Pakistango enbaxadoreak emakumeen aurkako indarkeria feministon asmakizuna zela gizonezkoek jendartean duten posizioa ahultzeko. Orain arte ez zen inor halakorik iradokitzen ausartzen. Orain bai. Zergatik? Arriskutsutzat gauzkatelako eta arriskuak gure baitan gordetzen diren egia mingarrienak azaleratzen dituelako.

Azaleratu liteke jendarte feminista bat kapitalismoaren baitan?

Kapitalismoa patriarkatuaren seme nagusia den heinean, ez. Patriarkaturik gabeko kapitalismoa ezinezkoa denez, kapitalismoaren eta feminismoaren baloreak kontrajarriak dira. Patriarkatua da munduko lehen dominazio mota. Hala, gizaki batzuk beste batzuen gainetik jaiotzen dira eta euren nagusitasuna bermatzeko sortzen dituzte egitura zein lege guztiak. Hortik datoz gainontzeko desberdintasun guztiak: klase sozialetan oinarrituak, azal kolorearen araberakoak, sexualitateari loturikoak... Gauzak zer diren, kapitalismoaren teorian

emakumeok ez gara existitzen, baina patriarkatua bezain sistema anker eta sotila ezingo litzateke mantendu botere guneetan emakumeen inolako presentziarik ez balego. Emakumeek botererik ez dutela edo boterera heltzeko direnak eta bi egin behar dituztela salatzen baduzu, Merkel, Lagarde eta abarren adibideekin jotzen dizute zaplaztekoa.

Hatzarekin ilargia seinalatu eta batzuek hatza ikusiko dute beti.

Ez dutelako ilargia ikusi nahi! Emakumeek patriarkatuaren baitan dituzten botereak oso gaiztoak dira. Esaterako, amaren boterea. Ama da hurrei kultura transmititzen diena, eta ondorioz, bere buruari harrika eginez, patriarkatua transmititzen duena. Botereak ez dio patriarkala izateari uzten emakumeen esku egoteagatik. Begira Indian, emakume asko eta asko euren amaginarrebek dituzte erailtzen. Ez dute euren mesedetan egiten, ordea, euren semeen alde baizik. Zeharo manipulatzailea baita patriarkatua, emakumeenganako epai irizpide zorrotzagoak inposatzeko bezain ankerra. Costa Rican emakume bat izan genuen lehendakari. Historiako desastre handiena zela zioen jendeak. Egia da desastre bat zela, neoliberal hutsa, baina bere aurrekoak eta aurrekoaren aurrekoak egin zutena egin zuen, ez gehiago, ez gutxiago. Gizonezko agintari bat zitala eta zikoitza izan daitekeela onartuta daukagu, emakume agintari zital eta zikoitza historiako desastre handiena da.

Giza-harremanak, jendarte antolaketa, hizkuntza auziak... Dena da boterea?

Botere harremanak daude gaitz guztien oinarrian. Hala, botere harremanak aztertu eta ulertzea ez da sare bat nola ehuntzen den ikertzea soilik, nork eta noren mesedetan saretzen duen agerraraztea baizik. Gaia zentzuz lantzen duen edonor jabetuko da gero eta boteretsu gutxiago dagoela gero eta botere gehiagorekin. Esaterako, Carlos Slim enpresariak nire herrialdeak baino diru gehiago du. Ondorioz, berak erabakitzen du zer egin daitekeen eta zer ez, zer den garrantzitsua, zerk duen lehentasuna, zer inportatu daitekeen, nolako lan baldintzak behar diren... Gizon horrek demokraziaren itxura guztiak zainduko ditu, baina nirea bezalako herrialde txikietan doministiku batekin alda dezake legea. Okerrena da miretsia dela, jende xeheak gurtua, eta aurpegia garbitzeko

fundazio bati limosna ematea aski du heroi bihurtzeko. Horretaraino erotu da mundua. Nola uler daiteke, bestela, norbanako baten aberastasunak mugarik ez izatea? Pertsona batek legez ez luke hein batetik gorako dirutzarik ukan behar. Hori azaltzean, alta, ikasleak asaldatu egiten zaizkit, erotuta dagoena ni naizela diote.

Nolako litzateke mundua emakumeek pentsatua balitz?

Oso ezberdin ikusten da mundua noizbait norbait zaintzea tokatu bazaizu. Mundu patriarkatuan monumentuak egiten zaizkie gerran hil direnei, baina ez etorkizuneko belaunaldiak bizirik mantendu dituztenei. Horregatik, ziur nago mundua emakumeen esku utzi balitz, zaintza baloratuagoa eta oinarrizkoagoa izango litzatekeela denon bizitzetan. Orain arte asko arduratu gara produkzio materialaz, baina oso gutxi erreprodukzio humanoaz. Oraindik orain, haur bat ekarri eta hezteak parentesia edo eten bat suposatzen du askorentzat. Are okerrago, patriarkatu kapitalista honek zaintza lana tuntunen lana dela sinetsarazi digu, garrantzitsua karrera bat atera, dirua irabazi eta gailu elektronikoa andana edukitzea dela. Hori ezin da legeekin soilik aldatu, mentalitate eta jarrera aldaketa behar da. Jakina da lapitzak ez duela nobela idazten, baina arkatzik gabe ez dago nobelarik. Erabili beharreko lanabesak dira legeak, zapaltzaileak diren neurri berean izan baitaitezke askatzaileak.

Diskriminazio positiboaz ari zara?

Hainbesteko desberdintasunak ez dira berez berdintzen, kanpotik eragin beharra dago. Esaterako, Amerikako Estatu Batuetan, diskriminazio positiborik gabe ez legoke zurien eta beltzen arteko berdintasunik. Diskriminazio positiboak berdintasuna azkartu egiten du, bidea sasiz garbitu. Arazoa da diskriminazio positiboak posizio pribilegiatuan edo boterean daudenen aurkako neurriak direla sinetsaraztea lortu duela sistemak. Costa Rican, 1982an, kongresuaren %50a emakumezkoa izan zedin kuotak exijitzen hasi ginenean, "dena nahi duzue!" leporatzen ziguten. "Dena ez, erdia bakarrik" erantzuten nuen nik, baina dena edukitzera ohituta dagoenari erdia laga beharra dena uztea iruditzen zaio. Nola ulerrarazten zaio gizonezko bati egin dezakeen onena bere lekua uztea dela?

Berdintasunean zinez sinestea pribilegioak askatzea da, munduarentzat hobeena dena zuretzat ere hobeena dela jabetzea.

Berdintasun ezak indarkeria dakar.

Eta gizon-emakumeen arteko berdintasun ezak genero indarkeria. Misoginia dagoeno, batzuen biziak besteenak baino gehiago balio dueno, ez dago miraririk. Noren heriotzekin zabaltzen dira albistegiak? Zergatik dira batzuen heriotzak beti hamabosgarren albiste? 50 shades of Grey filmean erotizatzeraino naturalizatzen da indarkeria. Kasualitatea, lege batzuek biolentzia debekatzen eta zigortzen dutenean bihurtu da erotikoa indarkeria. Patriarkatua etengabe moldatzen da egoera berrietara. Legeek traba egiten diotela? Indarkeria kamuflatzen saiatzen da emakumeek txartzat har ez dezaten. Zenbat aldiz entzuten da "maite nauelako jotzen nau"? Patriarkatuak ez ditu alferrik 7.000 urte. Badaki azalberritzen, badaki dena aldatzen denak berdin jarrai dezan. Emakumearen biziak, ikusmoldeak eta ekintzak gutxiago balio dutela da aldatzen ez den bakarra. Horregatik ez dute legeek sekula emakumea behar bezala babesten. Horregatik eragin behar da heziketan eta kultura aldaketan.

Behetik gora etorriko da aldaketa?

Aldaketa emango bada, behetik gorakoek eta goitik beherakoek norabide berean bultzatzea behar dute. Printzipioz, idealak litzateke aldaketa behetik gorakoa izatea, baina horretarako erakundeek emakume mugimenduak sustatu eta babestu behar dituzte. Esaterako, erakundeei dagokie hedabideei belarritik tiratzea gaia serio landuz estereotipoetatik harago iritsi daitezten. Noiz ohartuko dira estereotipo horiek direla emakumeen aurkako bortxaren eragile? Adierazpen askatasunaren aurka biraoka aritzea leporatuko didate, baina noiztik da adierazpen askatasuna bizia bera baino garrantzitsuagoa? Zenbat negozio eredu ezkututzen da adierazpen askatasunaren mozorropean? Noren buruan sartzen da herrialde gehienetako indarkeria matxistari buruzko artikuluetan erruaren zati bat emakumeari egotzea? Horrelako ereduarekin ez da harritzekoa jendea "emakume" edo "feminismo" hitzekin berehala enpatzatzea. Dena begi androzentristetatik ikustera ohitu denari, gai hauetan sakontzeak, ezagutzen ez duenari buruz

irakurtzeak suposatzen dion nagia eragiten dio. Nik, ordea, patriarkatua desagertzen den egunean soilik utziko diot feminismoaz hitz egiteari. Patriarkatuak emakumeak hiltzen eta zapaltzen ditueno, eta gizonezko askoren bizitza izorratzen dueno, ez dago bakerik.

Justiziari generoaren betaurrekoekin so eginez ikusten da bakea?

Generoaren betaurrekoekin ez da gizon-emakumeen arteko tratu ezberdintasuna soilik ikusten, gizakiaren molde dominatzaileetan ez daudenen aldeko justizia baizik. Noiz pentsatuko du justiziak burokrazia kontuak egitera doanari haurtzaindegia eskaini behar diola? Huskeria dirudi, baina haurra non utzi ez badu, nola jarriko du salaketa emakume batek? Gauza bera legeekin. Oraintsu arte legeek ez zioten deus emakumeen aurkako indarkeriaz, biktimek ez zuten zeresanik auzian. Zergatik? Legeak gizonezkoek egiten zituztelako! Sekulako borroken ondorioz aurrerapausoak eman dira, baina hala ere, oraindik ez daukagu lege idealik, denek dute arrasto androzentrista bat. Horri aurre egiteko ezinbestekoa da emakumeon ahalduntzea. Alabaina, ahalduntzea ez da helburu bat, bide bat baizik. Eskubide baten alde borrokatzeak ahalduntzen gaitu, eskubide hori mantentzeak ahalduntzen gaitu, gure bizitzari buruz guk geuk erabakitzeak ahalduntzen gaitu. Ahalduntzea emakumeon baitako arnas bat da, ez zerutik datorren ezer.

Arnasa ahalduntzeko, feminismoaz hitz egin beharrean ez al litzateke feminismoez aritu behar?

Inork ez dezala pentsa feminista guztiok sinesmen berak ditugunik, arazoari irtenbide berdinak aurreikusten dizkiogunik. Bereizketarik ezak argi eta garbi frogatzen du gure jatorri, kultura eta mundu ikuskera ezberdinak ez direla aintzat hartzen, ez gauzkatela gizaki bakantzat, oraindik ere 25 emakume 50 titi garelara. Arazoa da alde guztietatik garelara galtzaile. Gure arteko diferentziak azpimarratuz gero gure artean ezin garelara ados jarri nabarmentzen da, eta denak berdin agertuta gure aniztasunari egiten diogu uko. Horregatik da ezinbestekoa iparra ez galtzea, nondik gatozen eta nora goazen argi izatea. Orain urte batzuk nire hitzaldietan aho zabalka egunkaria irakurtzen egoten zirenak kongresuetan adi-

adi dauzkat orain, arrazoizko argumentuez gain lehen ez genituen argumentu juridikoak ditugu alde... Feminismoa ez da gauetik goizerako iraultza, baina niri bizitza salbatu dit.

Nortasun agiria

Alda Facio. Genero eta emakumeen eskubideen alorrean nazioarteko aditu nagusietakoa da legelari, idazle eta militante feminista kostarrikarra. CEDAW-ko (Emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak deuseztatzeko batzordea) hizlari berezia da, eta NBEko idazkari nagusiaren emakumeen kontrako indarkeriari buruzko aholkulari izana. Sari anitzen irabazle, herrialde askotan unibertsitateko irakasle, zenbait legeren egile, eta lehendakari eta lehen dama batzuen diskurtsoak idazteaz gain, *Sobre patriarcas, jerarcas, patrones, y otros varones* eta *Cuando el género suena, cambios trae* liburuak idatzi ditu.

Erljioak


“Munduko bost erlijio nagusienetarik bakar bat ez dago gizon-emakumeen arteko berdintasunaren alde. Are okerrago, oinarrian gizonaren menpeko rola banatzen zaio emakumeari. Hala, argiki aldarrikatuz edo era sotilagoan, denek dute emakumearen gorputza eta erabakia kontrolatzea xede”.

Jann-Marc Rouillan

"Denok gaude baldintzapeko askatasunean, baina nik badakit"

"Avanti o popolo, alla riscossa: bandiera rossa, bandiera rossa..."

SUSTRAI COLINA 2015eko irailaren 06a



1968ko maiatza, 16 urte...

Lehen manifestaldiak, poliziarekin lehen kalapitak... Ikastetxeko lagunekin pop ingelesa jotzen zuen talde bateko kide izatetik talde politiko bateko kide izatera pasa nintzen. Sozial-iraultzailea nuen aita, komunista ama, eskualdeko alderdi komunistaren lehen kideetako bat aitatxi, baina praktika eta ekintza politikoa 1968ko maiatzak eman zizkidan. Tolosan nengoen, gorrien hiriburuan, Espaniako gerra zibileko errefuxiatuz inguraturik, eta berehala sartu nintzen legez kanpo jarduteko beldurrik ez zuen antolakunde anarko bezain egituratu batean.

Espainiako iraultzan, II. Mundu Gerrako erresistentzian, eta makietan ibilitako jendearekin nenbilenez, naturala zen armen erabilera. Politikoki hezi ninduten kideak izan ziren ETA lehen aldiz masiboki armatzen lagundu zutenak. Hala, Burgoseko epaiketa denboran, Baionara bidali ninduten ETari laguntza logistikoa ematera. ETA V.ekoekin bazkaldu eta ETA VI.ekoekin afaltzen nuen. Eszizio garaietako bitxikeriak. Handik gutxira ezagutu nuen Oriol Solé, eta ohartzera Bartzelonan nengoen.

Tolosa, Baiona, Bartzelona... Hain simple, hain natural?

Tolosan bizi eta, Espainiako Estatutik etorritako errefuxiatuak baizik ez zenituenean inguruan, armen hautua berezkoa zen. Maoistek armak hartuko zituztela aldarrikatzen zuten bitartean, guk solairuetan genituen leherkari eta fusilak. Horiek hartu eta muga igarotzea naturala zen guretzat. Borroka bera zen Donostiara armak pasa edo Bartzelonan pistola soinean ibiltzea. Dena zen bizimodu zoragarri, liluragarri eta zoriontsu baten parte. 1974an, Puig Antichen exekuzioaren ostean, atxilotu ninduten Parisen, 1977an geratu nintzen aske, baina kartzelatik atera eta biharamunean ekin nion berriz borrokari. Ordurako nire antolakundea ez zen existitzen, baina trantsizioaren traizioaren aurka ari zen jende asko ezagutu nuen espetxean. Autonomoen borrokan inplikaturik, berehala nintzen Bartzelonan eta Madrilen. Aski fite, alta, errezeloak sortu zitzaizkidan euren borroka moldeekiko, hurbilago sentitzen nintzen autonomo italiarrendandik, eta Milanera jo nuen. Hala, Frantziako eta Italiako mugimenduen arteko lotura ziurtatu nuen zenbait urtez.

Action Directe sortu arte?

Autonomiaren baitan, erasotzen edo armak pasatzen zituzten talde politiko militar guztien koordinakunde bat genuen, eta Action Directe sortzea, koordinakundeari izena aldatzea baizik ez zen izan. Parisen autonomiaren mugimendua zapartatzen ari zen, siderurgiaren aldeko ofentsiba eta borroka pitzatzen, autonomiaren gaineko boterea nahi zuen jendeak, eta borroka armatuaren premia azkarra izaki, aitzina jo genuen. Alabaina, sasoi horri buruz ezin naiz sobera mintzatu, epaileek galarazten didate. Frantziak arazo izugarria

baitu bere memoriarekin. Badakite memoria gudazelai bat dela eta memoriaren eta presoen desagerraraztearekin lotzen dute. Historian zehar, Frantziak fite ulertu du etsitzen ez zuten presoak kalitu behar zirela. Ikusi besterik ez dago Indotxina edo Aljerian praktikatu eta Argentinara zein Uruguaira esportatu zuten izuaren eskola. Gerra leku guztietan jendea hilobi komunetan lurperatzen zuten bitartean, Frantziak itsasora botatzen zituen bere etsaien hilotzak. Bitxia da, sasian nintzenean nire argazkia denetan ezartzen zuten eta orain ez dute inon ikusi nahi.

Zer da sasian bizitzea?

Ez da jendeak uste duena, ez da 24 orduz arma soinean eramatea. Denboraren %90 apartamentu batean zaude, edozeinek egiten dituen arrunckeriak egiten dituzu, zure pozak eta penak kudeatzen saiatzen zara... Ez zaude egunerokotik salbu. Gero, egia da goizean etxetik ateratzen zarelarik ez dakizula gauean itzuliko zaren. Ez dakizu etxez aldatu beharko duzun, atxilotuko zaituzten, erail... Lehen lerroan urteak irauteko mugikortasun eta indar psikologiko itzelak behar dira. Zure politizazioaz eta zure borrokaren helburu zein arrazoiez ziur egoteak baizik ez dizute ezegonkortasun hori eramaten irakasten. Zertan ari zaren garbi baduzu errepresioaren gorabehera guztiei egiten diezu aurre. Borroka iraultzailean, inperialismo eta burgesiari armekin aurka egitea deliberatzen baduzu, ezin duzu "ez da erabat nire hautua" pentsatu. Aitzina jotzen duzun unetik ardura kolektibo guztiak egiten dituzu zeure. Horregatik, borroka, sasia barne, poz izugarria da niretzat, mundu hiltzaile batetik askatu eta esperantzaz betetako talaiata batean kokatzeko parada. Borroka armatua dudaz edo gaizki bizi duen militante batek ospa egin behar du, dena bertan behera utzi. Borroka armatua ez baituzu derrigortuta egiten. ETAkide damutuak borroka armatura behartu zituztela kexatzen entzuten ditudanero ez dut jakiten irri edo negar egin. Mugimendu armatu batek badaki ezin duela bere militante bat ezertara behartu. Badaki bere kideen politizazio eta arduraren baitan datzala bere arrakasta. Borroka armatua beti da kolektiboa, beti oinarritzen da ondokoarekiko konfiantzan, eta norbaitek "nik hau egin dut" esaten didanero jokoz kanpo geratzen da.

Estatuarentzat jokoz kanpo geratzearen definizioa atxilotu eta zazpi urte eta

erdiko erabateko isolamendua inposatzea da?

Ni hala atxiki ninduten. Hor sentitzen duzu determinazio eta ardura politikoaren indarraren garrantzia. Ezin duzu behera egin, ez daukazu eskubiderik. 24 orduko etengabeko aurrez aurreko hil ala biziko gatazkan zaude, dena egiten dute zuk etsitzeko, eta egin behar duzun bakarra ez etsitzea da. Hori da sekula ahantzi behar ez duzun bakarra. Baina zure kideak gaixotu direla edo senetik ateratzen hasita daudela iristen zaizu, solasa galtzen ari zarela ohartzen zara... Ez nintzen gehiago mintzatzeko gai, ahantzi nuen. Zure eguneko hitz bakarra funtzionarioari luzatutako agurra denean, buruan daukazun ideia eta adierazteko bidearen arteko erabateko deskonexiora iristen zara. Hasterako bukatzen nuen esaldia, eta jakina, ez zidan inork zipitzik ulertzen. Egunean pare bat orduz boz goran irakurtzen hasi nintzen, hitza ez galdu eta ahal izatera berreskuratzea zen borroka. Badakite urtebetez, bi urtez, hiru urtez eutsiko diozula, baina hutsune eta gabeziak azaleratuko zaizkizula. Hor mantendu behar da burua hotz. Estatuak demokrazian baino askoz aurreratuagoak daude torturan. Bukatu da azkazalak eraisten zizkizuten aroa, askoz muinerago jotzen dute orain.

Zer dago espetxeko harresien gibelean?

Jendartearen okerrenaren sublimazioa: erailketa, tortura, eta batez ere zaintzaileek gorpuzten duten jendeen miseria. Horri aurre egiteko erresistentzia antolatzen denean, alta, kanpoan ezinezkoak diren elkartasun sare humanoak ehuntzen dira. Hori da preso politikoon arma indartsuenetakoa. Hori bai, dena egingo dute ofizialki ez dadin preso politikorik egon. Lehenik, goizetik gauera preso politikoaren figura deuseztatzen zuen dekretua onartu zuten: "Besteak bezalako preso bat zara, baina lasai, beste kupel bateko sagardoa daukagu zuretzat". Ideologikoki oso garrantzitsua da beraientzat demokraziarekiko erresistentzia oro despolitizatzea, bestelako mundu bat amesten dugunok piztiak edo buru-gaixoak legez agertzea. Jende isolatu, zurrun, karratu, hotz eta errorik gabea garela diote, ez garela sekula maitemintzen, ez dugula afektibotasunik... Zergatik deitzen zioten Idoia Lopez Riañori "*Tigresa*"? Euren iruditerian, furiak baizik ez dezakeelako emakume bat borroka armatura eraman. Idoiaren engaiamendu politikoaren atzean ez zegoela konbikziorik agertu nahi zuten,

emakume biziki gaizto baten patua baizik ez zela. Aldi berean, zer gertatzen da biziaren sakralizazioaren inguruko diskurtsoarekin? Pestizidak, amianto, gerrak edo langileen esklabotza nahieran erabiltzen dituztenei betetzen zaie sermoi horrekin ahoa! Hiltzaile industrialak dira, eta guk inoiz inor hil badugu, artisauen gisan izan da. Horregatik diot ez ginela kartzelara gaizkile sartu, egin dugunaren ardura bizkarrean daramagula, eta kartzelan borrokak jarraitzen duela. Gaizkile fabrika horretan lekukotza hartu nuen borroka-moldetzat. Idaztea nire borroka politikoaren jarraipena da, literatura beti baita borroka errealitate baten lekukotza.

Ez zaizu zer idatzirik faltako.

Ez pentsa. Borroka errealitate horren faltan ez dut nire burua idazteko gai ikusten. Kartzelan askoz errazagoa zitzaidan idaztea, idazten nuenean borrokan ari nintzen. Katalunian edo Venezuelan banengo luma aiseago dantzatuko nuke, baina pentze hauei begira... Borrokatzen ez dudanean opresioa nabarmenagoa da nigan. Borrokan ari naizenean askoz kontzienteagoa naiz pertsonak inolako autonomiarik ez duen jendarte tirano batean bizi garela. Ezin zara arrastotik atera, jaiotzetik heriotzara zure bizimodua bideratuta dago. Azken 25 urteotan Frantzia hiper-erreakzionario bihurtu da. Europan zein Troikan herriak aukeratu gabeko agintariak dira nagusi, eta oker ez banago, faxismoa da hori. Syriza-koak preso politiko eta kartzelekin zer egin behar zuten galdezka etorri zitzaizkidanean, ezker-muturreko indar batek amnistia aldarrikatu behar lukeela iradoki nien. Ezin zutela, NATOren eta Europar Batasunaren bi testuk preso politikoan amnistia debekatzen zutela erantzun zidaten. Amerikako Estatu Batuen babesa berme, Ingalaterra izan da IRA-ko presoekin horri aurre egin dion bakarra. Sistemak ez du kontra egin dion jendea berriz politizatu nahi. Zer ari da gertatzen Euskal Herrian? Irteera kolektiboak ukatu eta epe luzera begirako banakakoak baizik ez daudela mahai gainean. Zer da hori borroka bat despolitizatzea ez bada?

Zer idatziko zenuke barkamenaz, damuaz, kondenaz?

Preso politikoei egiten zaizkien etengabeko xantaia tipikoak direla. Espetxeratu eta 18 hilabetera hurbildu zitzaizkigun egindako guztiari bizkar ematen zion testu politiko bat idatziz gero kalera gindoazela esanez. Horrela izan da kartzelaldiak iraun duen mende laurdenean. Hori da sistemak preso politikoentzat duen programa. Onartzen duzu ala ez. Lizarra-Garazi garaian, 700 preso kolpez ateraz gero Euskal Herriko indar harremana errotik aldatzen zela esaten nien euskaldunei, presoak armekin trukatu arren bururaino jokatu beharreko karta zela. Egun, aldiz, ez dut ulertzen nola euskal eragileek ez duten preso politikoan ardatz eta altxor politikoa gehiago baloratzen. Ez dut uste euskal presoak soilik erakunde baten presoak direnik, mundua aldatu nahi dugunon presoak ere badira. Horregatik, askatzeko oso kanpaina oldarkorrek egin behar genituzke, agintari eta buruzagiak interpelatu, kalea hartu... Uneotan, alta, ez dut ikusten gaiarekiko ildo koherente eta definiturik. Hainbeste preso edukita, nola ez da izango presoena zure askapen mugimenduaren funtsetako bat? IRA-rentzat ezinezkoa zatekeen borroka uztea presoak askatu ezean.

Zuri hirugarren gradua eman zizuten lehenik, baina elkarrizketa batean esandakoengatik preso sartu zintuzten berriz, eta baldintzapeko askatasunean zaude egun.

Hirugarren gradua paradoxa handi bat da. Oso zaila da kartzelatik ateratzea kartzelan lo egin behar duzunean. Eskizofrenikoa da bizitza bat kartzelatik nola ihes egin pentsatzen pasa eta gauero kartzelako atean zeure kabuz tinbrea jo behar izatea. Nahiago dut eskumuturreko elektronikoa jantzi ziegan egon baino, baina kondena luzatzeko modu bat da, zu kontrolpean luzaroago mantentzeko zirrikitua. Hala, elkarrizketa batean borroka armatua prozesu iraultzailearen fase bat zela aldarrikatu nuen, askapen metodo gisa gaindiezina zela, armarik gabe ez zela muturreko iraultzarik egongo. Syriza edo Podemosek garbi uzten dute burgesiaren erabateko erradikaziorik gabe ezinezkoa dela gutxieneko erreformak burutzea. Proposatzen dutena kapitalismoaren kudeaketa humanoagoa da, ez zapalduetako eta ustiatutako masen eguneroko bizitzaren eraldaketa. Horregatik, ez dago atxilotze arriskurik gabeko iraultzarik. Denok gaude baldintzapeko askatasunean, baina nik badakit.

Jann-Marc Rouillan

1952ko abuztuaren 30ean Auchen sortua (Okzitania). MIL, GARI eta Action Directe-ko ezker muturreko militante historikoa. Kartzelan zein sasia sartu-irtenak egin ondoren, 1987ko otsailean atxilotu zuten, bizi osoko bi kartzela zigorrera kondenatu, eta zazpi urte eta erdiz erabateko isolamenduan atxiki. 2007an hirugarren gradua eman zioten, baina 2008ko elkarrizketa batean esandakoen ondorioz lehen gradura itzuli behar izan zuen. 2011n atera zen berriz eta baldintzapeko askatasunean dago ordutik. Beste askoren artean, *De Memoire (I, II, III)*, *Chroniques carcérales eta Autopsie du dehors* liburuen idazlea da.

Kontraesanekin

“Ez naiz ezpal bakarreko enborra. Oso gaskoia naiz, baina aldi berean oso katalana, anti-autoritarioa, baina antolakuntza eta antolakundearen aldekoa. Kontraesana da erresistentziaren dinamismoaren motorra. Nire kontraesanez mugitzen naute eta nire kontraesanekin mugitzen naiz”.

The logo for ARGIA, featuring a stylized red and white graphic to the left of the word "ARGIA" in a bold, black, sans-serif font.

Andoni Lubaki

"Argazkia ateratzen dudan unean hustu arte negar egiteko eskatzen dit gorputzak"

"Entregatu nizkizun armak eta zuloak non neuzkan aitortu..."

SUSTRAI COLINA 2015eko urriaren 04a



Dani Blanco

Fotokazetaria.

Fotokazetaria izateak lege batzuk onartzea dakar: ezin duzu argazkitan ateratzen duzunaren testuingurua manipulatu, ezin duzu ez ezer ezabatu ez ezer erantsi, subjektuarekin hitz egitea dagokizu, argazki oinak zehaztea... Ikuspegi propioak gidatutako zintzotasun ariketa da. Testu bat idazterakoan, izenondoak hautatzen dituzu, nondik eta nola ekin erabakitzen, esapideen artean aukeratzen. Parean eta buruan dudanari zentzu bat emanez, gauza bera egiten dut nik argazkiekin.

Argazkilaritzari historikoki egiaren indarra aitortu zaio, aurrean duguna izozteko

gaitasuna, baina ez, argazkilaritza ez da egia. Egia kopuru bat dauka, egia faktore bat, baina argazki baten atzean beti dago ikuspuntu bakar bat. Nik erabakitzen dut non zer enfokatu, nik erabakitzen dut noiz egin klik. Ni naiz makina tekniko bati aginduak ematen dizkiona. Argazkilaritza objektiborik ez dago, testu objektiborik ez dagoen gisan. Karretea objektiboa dela? Kodak edo Fuji ala kolorea edo zuri-beltza hautatzen duzun momentutik markatzen duzu ikuspegia, eta gainera, egun photoshoparekin egin daitekeen guztia egin daiteke laborategian. Analogikoak zein digitalak izan, argazki guztiak dira subjektiboak. Hala, ukituak gure izenondoak dira.

Non dago sinesgarritasuna?

Zintzotasunean. Beti defendatu dut argazkilaritza subjektiboa dela. Beti esaten dut nik hautatu dudala zer enfokatu eta noiz egin klik, baina argazki horri ez diodala ez ezer kendu, ez ezer erantsi. Gauza bat da nire begien aurrean gertatu dena eta nik helarazi nahi dudan mezua bestea. Zintzotasun osoz egiten dut lan, zintzotasun osoz heldu nahi dut jendearengana, eta argazkilaritza objektiboa ez dela jakin arren, erabateko zintzotasun horri esker ematen dio jendeak sinesgarritasuna nire lanari. Arraroa da, argazkiak baino manipulazio gehiago onartzen ditu testuak baina albisteek kutsu objektiboa mantentzen dute oraindik. Argazkilariok, aldiz, etengabe borrokatu behar dugu gure sinesgarritasunaren alde, eta hori argazkilaritza subjektiboa eta gure zintzotasuna aldarrikatuta egiten da. Argazki bat zuri-beltzean atera badut esan nahi dudana indartzen duen estetika bat delako da, ez mundua zuri-beltzean ikusten dudalako.

Zer da argazki on bat?

Argazki on bat begietatik sartu eta buruan iltzatzen den irudi bat da. Gure burmuinak ez ditu bideo sekuentziak gogoratzen, irudi kateak dira tatuatuta geratzen zaizkigunak. Robert Capa-ren milizianoaren argazkia aipatzen badizut berehala etortzen zaizu irudia gogora. Gure baitan oihartzuna duten irudiak oroitzen ditugu, gudan zerbait pizten duten txinparta bat daukatenak. Horregatik da sentimendua komunikatzeko bidea. Argazki bat ateratzen dudanero, ikusten dudanarekin zein argazki hori ikusiko dutenekin enpatizatu behar dut. Ezin dut

ahaztu gure jendartean irudiarekiko dugun jokaera. Inoiz hegazkin bat ikusi ez duen Amazoniako tribu bati hegazkin baten argazkia erakusten badiot ez du zuk bezala erreakzionatuko. Ez da gauza bera hilotz baten argazkia haur bati edo heldu bati erakustea. Argazkietan kamera hau eskuetan agertzeak ez dauka esanahi bera argazki munduko batentzat edo publiko orokorrarentzat. Kodearen jabe izan behar naiz, ezin dut kultura hori erantzi. Horregatik, ez duzu inoiz argazki on bat jendarte osoarentzat egiten, jendartearen zati batentzat baizik, zu parte zaren jendartearentzat.

Hilotzak aurrean, odol usaina bazterretan, tiro-hotsak non-nahi...

Halakoetan ez al da enpatia baino gehiago behar argazkiak ateratzeko?

Ni ez noa frontera zaurituak artatu edo tiroketa bat badago ospa egiteko. Nire lanak ez luke ezertarako balioko. Senari kontra egitea dagokit, burua hotz mantendu eta nire begi-bistan gertatzen ari dena islatzea. "Zertara etorri naiz hona?" bezalako gogoetak aurrez egin behar dira. Badakit gure jendartean hilotzak makilatuta eta hil-kutxetan agertzen direla. Badakit lurrean sakabanatutako gorpu zikinek krak egingo dutela gugan, eta zergatik ukatu, talka horren bila nabil. Enpatiaz mintzo naizenean, garbi dago ezin dudala hilotz batekin enpatizatu, baina bai argazkia ikusiko duenarekin. Enpatiatik iristen da gogoetara. Horregatik erabiltzen dut zuri-beltza odola dagoenetan ere. Ez dut odolaren gorria ikusterik nahi. Nahiago dut koloreak dakarren informazio sorta kendu eta momentuko espresioa azpimarratu.

Zure begiek odola gorri ikusten dute, ordea. Nola kudeatzen da hori?

Momentuz ondo daramat. Hona itzultzean pribilegiatua sentitzen naiz. Ederra da etxetik tabernara atzera begiratu gabe etorri ahal izatea. Familia eta lagunak babes handia dut, gainera. Hori bai, ez diet zer pairatu eta zer bizi izan dudana esaten, alde umoretsua soilik kontatzen diet. Ezkutu bat da hori niretzat. Beldur naiz, ordea, ofizioan jarraituz gero, esperientziak nire baitan berun zatiak bezala gordeko ote ditudan. Beruna oso material pisutsua da, gure gorputzak arnasten du baina ez da kanporatzeko gai. Hala, pixkanaka, hortzak erortzen zaizkizu, giltzurrunetatik eta gibeletik berun hori kanporatu ezin duzun unea iristen da

eta... hil egiten zara. Lankideek frontean bizi izandakoa beruna dela esaten didate, hastapenean ez zaituela kaltetzen, baina kanporatu ezina datorkizunean pott egiten duzula. Oraingoz, nire amesgaiztoak izaten ditut, izerdi hotzez blai esnatu izan naiz, baina berehala pasatzen zait. Hala ere, argazkia ateratzen dudan unean hustu arte negar egiteko eskatzen dit gorputzak. Zotinka hasi arte isurtzen ditut malkoak. Hori da beruna kanporatzeko nire arma. Horri esker, hona iritsi eta barre baizik ez dut egiten.

Argazki on bat ateratzeko edozertarako prest zaude?

Denak ez du balio. Argazki bat egiteagatik hilko nautela jakingo banu ez nuke aterako. Heriotzari beldurra diot, sufrimenduari izua. Argazki batek ez du nire bizia edo nire sufrimendua balio. Hori jakinda jarraitzen dut egiten dudana egiten. Saharan, manifestazio batean argazkiak ateratzen ari nintzela, nire aurrean zihoan 18 urteko gazte bati mina bat lehertu zitzaion hasi nintzen lan honetan. Haragi sarraski bat zen hanka hura. Laguntzera hurbildu nintzaion, ateratako argazkiak *Gara*-n zein *Paris Match*-en argitaratu ziren eta Danimarkako GKE batek ikusi zituen. Argitalpen horietako sosekin Danimarkarako txartela ordaindu nion gazteari bertan sendatu zezaten, eta gaur da eguna Dajlako kanpamentuan oinez dabilena. Sinetsi egin nuen argazkiei esker zerbait lortu nezakeela. Ordutik hona, ordea, ez dut beste ezer lortu, baina ez dut esperantza galtzen. Badakit nire argazki batek ez duela gerrarik etengo, baina pertsona bakar baten sufrimendua arintzeko balio badu, ni prest. Horregatik ere saiatzen naiz ahalik eta zintzoen informatzen. Ez naiz gerratik bizi, ez naiz parakaidista.

Ez zara gerratik bizi, ez zara parakaidista, baina gerran bahitu zintuzten.

Hasieran ez genekien zeintzuk ziren. Zuk dakizuna da bahituta zaudela eta horrelako tokietan bahiketak luze jotzeaz gain gehienetan ez direla ondo bukatzen. Nortzuk diren eta zer nahi duten jakiten duzunean larritu egiten zara, dena bukatu dela pasatzen zaizu burutik, arrisku bat ez duzula behar bezala baloratu, aurreregi joan zarela. Zorionez, ordea, azkar eta ondo bukatu zen gurea. 12 ordu izan ziren. Dena den, ez zait horri buruz hitz egitea gustatzen. Nire guraso eta ingurukoei ez diet alde krudel eta estresantea kontatu. Anekdotak

dibertigarriak baino ez: txizagurea genuenean egiten genuena, estropezu egin nuenekoa, ondokoaren zurrunkak... Gainontzekoa ez dut kontatu nahi, ez luke ezer ekarriko. Bahiketak inguruan neukan lasto pila kendu eta aurrean nituen benetako loreak ikusten lagundu dit. Frontera itzultzeko esperientzia eman dit, argazki batek ez duela nire bizia, askatasuna edo osasuna merezi oroitarazi. Orain eskuineko begiarekin enfokatzen dut baina ez dut ezkerrekoa ixten.

Ni naiz argazki batzuk ikustean begi biak ixten dituen. Non dago pornografiaren muga?

Hilotzez, tripez eta odolez jositako argazkiak ateratzen ditud, bertan nagoelako, eta batez ere, zentsura gero datorrelako. Haur bat tripak airean agertzeak zer ekartzen dio nire lanari? Ezer ez, morbo hutsa da, indarkeria pornografikoa, eta argazkien zilegitasunaz galdetzera narama. Alepon atera ditudan argazkietan hilotz gutxi ageri direla esaten dit jendeak. Frankotiratzaileen etorbidean hilotz ustelduak klikatu ditudala erantzuten diet nik. Hor testuinguru bat dago, ordea: morteroek zibilak ere hiltzen dituzte eta hilotzak ezin erretiratuta dabilta. Zenbat aldiz ikusi ditugu Gaza-ko umeak bururik gabe, hilotz? Nire ustez hor ez dago ekarpenik, biolentzia hutsa da, ez nik adierazi nahi dudana. Libian ateratako argazki batzuk hain dira gogorak ez dizkiedala inori erakutsi. Errealitatea ezkutatzea leporatzen didate, baina nik ez dut errealitatearen zati hori agertu nahi. Gerran bonbak lehertu eta sarraski humanoak gertatzen direla suposatzen da, ez dago esplikatuko beharrik. Anabasa da gerra, bortizkeria anabasa. Bertan egonda ere, oso zaila da jendearen goxotasunetik krudelkeriarainoko eraldaketa ulertzea. Horregatik diot gatazka guztiak ez direla gerrate, baina gerrate guztiak direla gatazka. Noiz hasten da gerra? Noiz bukatzen? Jugoslaviako gerra bukatu da? Hemen oraindik gerra zibileko kontuez ari gara hizketan. Nik ez dakit nire osaba bat non dagoen. Zer da hori gerrate baten ondoriozko gatazka ez bada?

Gatazka batzuk besteak baino agerikoagoak dira, alta. Nork erabakitzen du zer den albiste?

Medio handiek. Ez dut uste Amerikako Estatu Batuek edo Europar Batasunak zuzenean medioetara gai-ordena bidaltzen dutenik, baina gure ongizatea eta

eguneroko eroso kolpatzen duten gertaerak dira albiste. Estatu Batuak Iraken zeudenean egunero hitz egiten zen horri buruz. Joan zirenean, hildako kopurua bikoiztu egin zen, baina albistegietan arrastorik ez. Oraintsu arte Sirian baino hildako gehiago zegoen Iraken, baina Siria zen notizia. Zergatik Siria? Gune estrategikoa delako, goxoki handi bat gure agintarientzat. Orain Siria entzun eta errefuxiatuak etortzen zaizkigu gogora, baina noiz hasi gara errefuxiatuez hitz egiten? Greziara iritsi direnean, gure ongizatea eta erosotasuna kolokan sentitu ditugunean. Nork daki orain Europara baino askoz errefuxiatu gehiago iristen dela urtero Hegoafrikara edo Boli Kostara?

...

Negozio bat da dena. Agentzia batek ez du sekula Boli Kostara inor bidaliko. Badaki "hori guri bost!" erantzungo diotela medioek. Egongo da kazetari bat hori guztia jasotzen ari dena, baina oso esparru mugatua izango du, ekonomikoki sekulako zailtasunak... Ekonomiari erreparatzea eta ardi izatea bereizi behar ditugu, ordea. Ardi izateari uzteko garaia da. Jakina Europara ihesi datozen errefuxiatuen istorioa kontatu behar dugula, baina nork daki ezer Mozambikeko ikatzaren exilioaz? Ikatza ateratzeko estatu oso bat ari dira mugitzen, jendea zabortegietara kondenatzen dute, baina guk ikatza nahi dugunez ez da inon horren berri ageri. Ni kuriositateak mugitzen nau. Medio batek gutxieneko soldata ziurtatuko balit ezkontzak eta abarrak utzi eta hegan joango nintzateke ezkutuko istorio horiek jorratzera. Baina ez da posible, ez dut horretarako prest dagoen mediorik ezagutzen. Hala ere, ez nuke agentziekin orain arte bezala kolaboratu nahi. Badakit horrek ate asko itxiko dizkidala, *The New York Times*-eko azalak bukatu direla, baina lan hau bokaziotzat dugunontzat ez da zereginik falta.

Nortasun Agiria

Andoni Lubaki. 1982an Urretxun sortutako fotokazetaria. Saharan, Libian, Irak-en, Algerian, Sirian... ibili da lanean, Associated Press eta Vice News agentziekin kolaboratuz, eta bere argazkiak, *The New York Times*, *The Guardian*, *The Washington Post*, *Garan* eta *Argian* argitaratu dira. 2013an, Alepon bahituta egon zen. Urte hartako Chris Hondros sari nagusia eta Pictures of the Year Internationalen bigarren saria eskuratu zituen.

Azken hitza

Sariak. "Interes zaku bat da dena. *Atlanta photojournalism*-eko urte bateko palmaresa hartzen duzu eta ohartzen zara hautagai guztiak Associated Press (AP)-eko argazkiak zirela, epaileak AP-koak zirelako. Kasualitatez, *The New York Times*-eko bi argazki dira sarituak, eta AP eta *The New York Times*ek harreman oso estua dute. Hurrengo urtean gauza bera France Press-ekin. Zergatik ez du Pulitzer saria Somalian lanean ari den argazkilari afrikar batek irabazten? Ni Chris Hondros eta Pictures of the Year sarietan saritua izan naiz, baina nik ez nuen argazkirik aurkeztu, agentziak baizik. Are gehiago, ez nago konforme agentziak aurkeztu zituen argazkiekin. Sarrionandiak ezin hobeto azaldu zuen: sariak masoneria kontuak dira".



Susan George, altermundialista

"Kimera da jendearen sufrimenduak politikak alda ditzakeela pentsatzea"

Txanogorritxoren ipuina kontatzen zidatenean Hiru txerritxoena eskatzen nuen, Hiru txerritxoenarekin hasiz gero Edurne Zurirena, Edurne Zurirena zabaldu orduko Mari Errauskinena... denak ipuin berbera zirela ohartu nintzen arte.

SUSTRAI COLINA 2015eko azaroaren 15a



Susan George 1934, Akron (Ohio, AEB) Intelektual, idazle eta militante altermundialista. Sorbonan lizentziatua eta Pariseko goi-mailako Gizarte Zientzien eskolan doktoratua Gosearen estrategak izenburuko tesiarekin

Alarma, alarma, alarma, alarma...

Zibilizazioaren historian lehen aldiz, gizakia giza espeziea deuseztatzen ari da. Petrolioaren deskubrimenduak dolarrak jarri zizkigun begien partez, altzairugintzaren loraldiak orotariko gas festa ekarri zuen... Sistematikoki bihurtu ditugu aukerak mehatxu. Pentsa, 200 urte txatxu aski izan ditugu 200 milioi urte burutsu komunetik behera botatzeko. Lurraren gainean inoiz egon den espezierik kaltegarri eta toxikoena gara. Hori da arazo guztien erroa. Hori hala deno, jendea aski ongi bizi den, denentzat enplegua dagoen, denak ongi sendatu daitezkeen, eta hurrei heziketa aberatsa eskaintzeko aukera duen jendarte duina aldarrikatzea iraultzailea izatea da. Ahoa ireki orduko, "ezin dugu besterik egin", "aukera txarren artean onena hautatu dugu", "hauxe da egokitu zaigun garaia" bezalako fatalitateak aurpegiratuko dizkizute. Gure gogoetan alternatibarik eza txertatzea da sistemaren garaipena. Alternatibak, aitzitik, egon badaude, plantan ezartzeko borondatea da falta dena. Martxa honetan, alta, lehenago etorriko da giza espeziearen desagertzea patrikak bete eta bete ari direnen borondatea baino.

Gainontzeko krisiak krisi ekonomikoaren ke-gortinaren atzean ezkutatzeko borondatea ikusten dut nik.

Bi muturreko joera oker antzematen ditut. Hainbat krisiren arteko inoizko gurutzaketa nahasiena bizi dugun irudipena zabaltzeko interesa batetik, eta arazo guztien oihana krisi ekonomikoaren zuhaitzarekin estali nahia bestetik. Izan ere, ez da aiantzi behar medioak bozgorailuak direla. Interesa dutena azpimarratzeko bolumena igo egiten dute eta estali nahi dutena isiltzeko jaitzi. Egun osoan krisi ekonomikoa gora eta behera dabilzala iruditu arren, krisi ekonomikoaren ikuspegi jakin batez baizik ez dira ari. Noiz aipatzen dira bankuen ankerkeriak? Noiz biluzten da finantza sistema? Irakurri duzu sistematik irteteko asmorik? 2008ko krisi basatiaren ondotik denak lehen bezala jarrai dezan utzi dugu. Ikusi besterik ez dago, merkatuetan finantza tresna deribatuak eta truke operazioak biderkatu egin dira. Hori ez da hedabideetan agertuko, baina horrek ez du esan nahi, ez gertatzen ez denik, ez gertatzen dela ez dakigunik. Askatasuna fakturak norberak ordaintzetik hasten da, ordea, eta hedabide handiak fortuna handiagoen esku daude.

Askatasunaren faktoretatik fakturen askatasunera pasa gara?

Eskubide sozialen eraistean urrats bat haratago joateko aitzakia baizik ez da izan krisi ekonomikoa. Reagan eta Thatcherrekin gorpuztu eta munduaren hegoaldean esperimentatu eta findu zen neoliberalismoa aplikatzen zaigu egun. Gu dolarean txikitu baino askoz lehenagotik dago doktrina asmatuta eta olioztatuta. Oso modu inteligentean pentsatu, garatu eta ehundu dute amarauna. Aspaldi ulertu zuten boterea iraunkorki lortzeko bortizkeriak soilik ez duela balio, jendearen garunean sartu behar dela, ideiak gogoetan txertatu, iritzi sortzaileak paisaian urtu... Dena egin dute zuk pentsatzea nahi dutena zuk zure kabuz pentsatzen duzula sinets dezazun. Neoliberalismoak dirutzak gastatu ditu ideiak fabrikatzen. Armagintzan zein kimikan ateratako fortunak fundazioetara bideratu dituzte ideiak sortu eta pestiziden gisan jendartean hedatzeko. Ordaindu behar denean ordaintzen dute, saritu behar denean saritu, ez daukate erreparorik bere burua alternatibotzat duen puntako ikerlaria fitxatu eta arrastoan sartzeko, eta batez ere, garaiezinak diren joko-zelai bihurtu dute mundua. Izan ere, neoliberalen arrakasta ez dator denetan onenak izatetik, beraiek onenak diren zelaian partidak jokatzera behartzetik baizik.

Zer egin du ezkerrek horri aurre egiteko?

Askorik ez. Errealitate gorria atarian ikusi arte ez gara mehatxuaz jabetu, eta okerragoa dena, gure ideiak askoz hobeak zirela uste genuenez ez ditugu defendatu ere egin. Arrazoia izatea aski zela konbentzituta bizi izan gara, lastoa eta garia aukeran jarrita jendeak gariaren alde berez egiten zuela sinetsita. Askatasuna zein aniztasuna ez badituzu defendatzen, merkatuak dena konpondu dezakeela eta aterabiderik onena merkatuarena dela sinesten bukatzen du jendeak. Pentsa, austeritate politikak iragarritz Thatcherrek "ez dago beste alternatibarik!" aldarrikatu zuenean, ezkerrearen jokamolde eta pentsamolde guztia blokeatu zuen lau hitzeko esaldi batekin. Horren atzean, ordea, estrategia burutsua, dirutzak eta lana daude, ez espiritu santua.

Lau hitzeko esaldi batekin pitzatu daitezke klase sozialak?

Identitatearen politika garatuz irabazi du sistemak klase sozialen bataila. Dena dago eginda norbanakoak euren identitate pertsonalaz arduratu eta elkarrekin

eraiki ahalko genukeena ahanzteko. Homosexualen ezkontza homosexualena soilik dela sinestarazten digute, etorkinen aferak etorkinen kontua baizik ez dela, abortatzeko eskubidea abortatu behar dutenena bakarrik... Identitatearen politikak izugarri frenatu ditu borroka progresistak. Bestelako mundu hobe baten aukera identitatearen bidez zatitu eta pitzatzea izan da sistema neoliberalaren estrategia. Hori hala, nola ez dira aldatuko klaseak? Gure amamaren sasoian, diruak garrantzia zuen baina gaur egun duena baino askoz gutxiago. Diruaz gaindiko elementuek ere saretzen zuten klase soziala. Gaur egun, ordea, sozialki diruak jartzen zaitu zure lekuan, ez beste ezerk.

Sufrimenduaren ezteak aldatu dezake hori?

Jendeak pazientzia harrigarria du, behar baino askoz gehiago jasaten ari da. Erreboltarako, alta, elkartzeko egiturak, enpatizatzeko guneak behar dira, eta tamalez, sufritzen duen jendea biltzeko topagune eraginkorrak falta zaizkigu. Horregatik iruditzen zaie batzuei eskuin muturra dela euren minak arinduko dituen ukendua. Ez dira ohartzen desberdintasunak areagotzen duela pairamena. Izan ere, buru-gaixotasunen, suizidioen, alkoholismoaren, droga menpekotasunaren, gazteen delinkuentziaren, obesitatearen... erroan desberdintasun sozialak daude. Sufrimendua ez baita materiala soilik, jendartean zokoratua eta gutxietsia izatea ere bada. Eskailera sozialaren kontzeptua hain barneratua izateak izugarriko kaltea egiten dio gure osasunari. Gora iritsi nahi eta ezina, eskaileran gorago daudenekiko malerus sentitzea, etengabe nork menostua izatea... Tortura hutsa da! Bazterketa sistema bat da gurea, onenak hartzen eta gainontzekoak alboratzen dituen. Horixe mundializazioaren ikur gorena. Hala, kimera da jendearen sufrimenduak politikak alda ditzakeela pentsatzea.

Bozkek alda dezakete mundua?

Hor dago Tsipras, hor dago garai batean esperantza iturri izan zen Obama... Ez dut nik esango bozkatzeak ez duela deusetarako balio, okerrenerako gonbitea litzateke. Arazoa da botoak salgai daudela. Estatu Batuetan, esaterako, aberaskiloek nahi beste diru sartu dezakete hautagaien kanpainetan zein

propaganda aparatuetan, eta haragia ahula izateaz gain, patrikak beratzen du bihotza. Bozkak erostetik hasten da demokraziaren usurpazioa. Hala, politikariak merkatuaren erabakiei bedeinkazioa emateko besterik ez daude, eta bitartean, merkatuaren erabaki oro erabaki ona dela dioen doktrina zabaltzen eta sendotzen da. Izugarria da merkatuaren diktadura. Botere ekonomikoaren eragile nagusiei edozertarako eskubidea onartzen die ekonomikoki boteretsuak diren bitartean. 30 urtez lobbyak neurri eta kontrolik gabe hazten utzi dituzte, aditu batzordeetan parte hartzen dutenen %90 enpresa handietako jendea da... Ez dago miraririk, ereiten duzun ideologiaren arabera lege uzta biltzen duzu. Nork gobernatzen du? Norentzat? Zertarako behar dituzte enpresek estatuak itzaletik gobernatzeko ez bada?

Hori indartzera dator TTIP?

Enpresa transnazionalak 20 urte daramatzate jokaldia prestatzen eta aitzina jotzeko tenorea iritsi dela erabaki dute. Hala, tribunal pribatuak hobesten dituzte, legeak egin eta desegiteko aukeraren jabe egin nahi dute, enpresaren etekinak kaltetzeko moduko edozein neurri hartzen dituzten gobernuen aurkako auzibideak zabaltzeko modua izan. Aspalditik zebiltzan lotsa galdua eta disimulua galdu dute orain. Alabaina, jendea ez da tontoa, ulertu du zer dagoen jokoan eta TTIPen aurka altxa da. Hori da enpresek espero ez zutena. Bulegoetan pentsatu, bulegoetan adostu eta bulegoetan itxiko zen afera bat zela uste zuten, ez zela inor ezertaz konturatuko. Drakularekin egin zutena egitea dagokigu, banpiroa argitara ateratzea, ea horrela hiltzen den.

Egoera irauli daitekeela frogatzen du horrek?

Poliki eta pazientzia handiarekin egoera makurrena ere irauli daiteke. Bakoitzak egiten dakiena ahal bezain ongien egitea da bidea, ondokoa bere arloan zure antzeko bilaketan ari dela ohartzea, sinestarazi nahi diguten bezain aparte ez gaudela ez ahanzte. Iritsiko da indar guztiak bat egingo duten eguna. Ez da alferrik masa iritzia elur-jausien parekoa. Urteak joan eta etorri malutak elkarren gainean pilatzen dira, eta halako batean, itxuraz beste guztiak bezalakoa den maluta batek elur-jausia eragiten du. Mohamed Bouazizi-ren historiak frogatzen

du inoiz ez dela jakiten noiz. Tunisiako barazki saltzaile bat zen, erabat ezezaguna. Enegarren jazarpenaren ostean bere barazkiak kendu zizkion poliziak. Baldintza horietan ezin zuenez familia aurrera atera, kalera irten eta bere burua imolatu zuen, udaberri arabiarrari hasiera emanez. Elur-jausia eragiteko hain gertakari lazgarririk behar ez izatea espero dut, baina...

Ez diezagula elurrak etorkizuna estali.

Geopolitikoki Txinak pisu handiagoa izango du, Ekialde Hurbileko etorkizuneko potentzia Iran izango da, klima aldaketak egun kolpatzen dituen eskualdeak bortizki kolpatzen segituko du, mundializazioak geroz eta jende gehiago utziko du bide bazterrean, harresiz jositako Europa militarizatu bat eraikiko da... Hori da sistemak errefuxiatuen krisiari emango dion irteera. Denok dakigu hilabete hauetako errefuxiatuen exodoa ñimiñoa dela ezagutuko dugunarekin alderatuta. Horregatik diot klima aldaketak errotik bereiziko duela mundua, euren ipurdia salbatzen ahalko dutenen eta ezingo dutenen artean. Gainera, euren ipurdia salbatu dezaketenak ere etengabe euren ipurdia salbatzera kondenatuta egongo dira, noiz arte biziraun ahal izango duten jakin ezinik. Klima aldaketari berehala adarretatik heldu ezean jai daukagu. Alferrik ikertuko ditugu ondorioak ez baditugu kausak desagerrarazten.

Norbere bizitzan, alta, badira elurra lurmendu arren desagertzen ez diren lorratzak.

Ez nintzen politizatua sortu, ez ninduten ardatz politikoen inguruan hezi, nerabe nintzela ez nion kasurik egiten politikari. Vietnameko gerrak politizatu nau, nire herrialdea hainbesteko sarraskiak burutzeko gai izateak. Behin politikoki aktibo bihurturik, han-hemenkako jende miresgarria ezagutu dut, bizitzan zer borrokatua izatea zarenari zentzua ematen dion altxor handi bat dela ohartu naiz, eta zorionez edo zoritxarrez, beti kausitu dut zeren alde borrokatua. Egun, badakit zer dagoen nire esku, badakit jakintza eta ezagutzaren artisau bat naizela, gauza konplexuak sinpleki esplikatzea dela nire ardura. Gainontzean, mundu guztia bezalakoa naiz, seme-alabak ditut, bilobak... Garai onean sortu, garai onean bizi eta okerrena ezagutu gabe hilko naiz, okerrena ekiditeko egin nezakeena eginik.

Susan George

1934, Akron (Ohio, AEB)

Intelektual, idazle eta militante altermundialista. Sorbonan lizentziatua eta Pariseko goi-mailako Gizarte Zientzien eskolan doktoratua Gosearen estrategak izenburuko tesiarekin. Amsterdam Transnational Institutuen sorreran partaide, Greenpeaceko administrazio kontseiluko kide ohi, Mundializazioaren Behatokiko lehendakari ohi, ATTACen sortzaile eta ohorezko presidentea da egun. 2012an, beste intelektualetan eta eragile sozio-politiko batzuekin batera, Roosevelt kolektiboa sortu zuen hondoratze ekonomikoa ekidin eta jendarte hobea sortzeko hamabost proposamen plazaratuz. *Le Rapport Lugano*, *Un autre monde est possible si...*, *Leur crise, nos solutions* eta *Les usurpateurs* dira bere liburu esanguratsuenak.

Off the record: Haurtxoa

Bada egia handiak esateko boza altxa behar ez duen jende bat, energia transmititzeko neurritz kanpo mugitu behar ez duena. Horietarikoa da Susan George, dotorezia anglosaxoiaren eta heziketa frantsesaren arteko koktela. Elkarrizketa bukatu ondoren, altxa, siestatik esnatu berri den haurtxo batekin topo egin eta akabo heziketa frantsesa zein dotorezia anglosaxoia: mingaina ateratzea soilik falta izan zaio. Belarritik belarrirako irribarrez abiatu da hitzaldia ematera, haurtxo horrek mundu hobe bat ezagutu dezan.

Andoni Olariaga, filosofoa

"Ezker abertzalean, jende bat mundurik gabe geratu da"

Zer gelditzen da hitzak nekatuta daudenean, kontzeptuak lurretik urruntzen diren lainoak direnean, bihotzak pentsatu eta buruak sentitzen duenean...?

SUSTRAI COLINA 2016ko apirilaren 24a



IN-DE-PEN-DEN-TZI-A.

Orain arte abertzaletasuna gehiegi zentratu da motibazio irrazionaletan, historia puzteraino. Abertzaletasunaren azken korronteak, ordea, "independentzia zergatik eta zertarako?" galderari erantzuten ari dira, onura ekonomiko, sozial zein kulturalak mahai gainean jarriz. Tamalez, zergatiak besterik gabe lantzeak ez du bloke berririk sortuko, ez du jenderik mugiaraziko. Independentziaren beharra orain arte baino mamitsuago arrazoitzeaz gain, fidelitateak zerk sortzen dituen

hausnartu behar genuke. Nola sortzen dira nazio pertinentziak? Fidelitate horiek lanketa arrazional bati esker mugitzen dute jendea? Aurrez aurre daukagun blokerak iristeko modurik badugu? Ez diote alferrik Joseba Gabilondok eta Eduardo Apodakak lur hori goldatu behar dugula lehenbizi, gure nazioa berriatzi ideia horiek bidea egin dezaten.

Nola hasten da bidea?

Nazioa egunero eraikitzen eta desegiten den zerbait dela ulertuta. Zer da nazio eraikuntza? Egunero *El Correo*-k "pueblo" hitza erabiliz egiten duena. Espazituki agertu ez arren, nazioa da proiektu, balio eta eskubide guztiak gauzatzeko aintzat hartzen den lehen baldintza. Podemosek ikuspegi soziala lehenesten duela dioenean, espainiar herritarrentzako lehenesten duela dio esan gabe. Nazioaren ulerkera aldagarri honek ez luke jendea beldurtu behar. Nazioa estatikotzat jota ez genuke borroka esparrurik edukiko. Aldagarritasunak egunerokoan kokatzen du guda-zelaia. *El Club de la Comedia*-rekin barrez lehertzen naizenean, garbi izan behar dut umoregile hori espainiar nazioa eraikitzen ari dela, darabiltzan erreferentzia sinbolikoek nire Espainiarekiko pertinentzia areagotzen dutela. Guk nahi ala ez, horrek eragina dauka gure izaeran. Esaterako, politika ulertzeko oso modu espainola daukagu. Ez dakigu kritika eraikitzailek egiten, ados ez gauden lehendabiziko hitzean etxera joateko mehatxua jaurtitzen dugu. Hala, mugimendu geroz eta zabalago bat nahi badugu, diferentziak komunean dugunari eutsiz adierazten ikasi beharko dugu.

Balio digu besteak bezalako estatu bat izateak?

Normalak izateari beldurra diogu. Ez dugu normalak izan nahi. Erosoa da zure proiektu politikoa kontra eginez eraikitzea. Estaturik gabe ez daramazu estatuaren miseriarik bizkarrean. Horregatik, "Euskal Estatu feminista izango da edo ez da izango" ala "Euskal Estatu euskalduna izango da ala ez da izango" esatea edo ezer ez esatea gauza bera da niretzat. Dilema hori ez da existitzen. Estatu jendartearen indar korrelazioen isla izango da. Euskal Estatu gaur sortuko balitz kalean egunero ikusten dugun horixe izango litzateke. Ezin dira estatu egiturak zure jendarte baina askoz aurrerakoiagoak izan. Gaitz bat da

jendartea oso konbentzionala dela ahanztea. Herriarentzako planak herria kontuan hartu gabe egiten dituen iraultzaile ilustratu asko dago. Gustatu ala ez, *El Correo Español* da hemengo egunkari irakurriena. Horrek laburbiltzen du hemengo sen ona.

**“Euskal Estatu
gaur sortuko balitz
kalean egunero ikusten
dugun horixe izango
litzateke. Ezin dira
estatu egiturak zure
jendartea baino askoz
aurrerakoiagoak izan”**

**Horregatik eztabaidatzen dugu hainbeste
independentziaz independentistekin eta hain
gutxi independentzia ukatzen dutenekin?**

Oraintxe bertan independentziaren aurkakoeak, Podemosen eskutik, euskal jendartearentzat erakargarria izan daitekeen proiektu oso definitua daukate. Guk ez. Gu independentzia zergatik bai eta zergatik ez eztabaidatzen

tematzen gara, baina noiz definituko dugu gure estatu eredua? Jendea erakarri nahi baduzu argi markatu behar duzu zure helburua. Oraingoz, ordea, horretarako baldintzak sortzen ari diren arren, ez dago estrategia independentistarik. Estrategia hori aldebakarrekoa izango bada, karta guztiak jokatu beharko ditugu bideak urratzeko eta erretzeko beldurrik gabe. Esaterako, taktikoki interesgarria izan daiteke alde bakarreko posizio batetik alde biko proposamenak egitea, estatuak onartuko ez dituela jakinik. Zure proposamenak zure jendartean zilegitasun osoa badu, berehala erakusten duzu Espainian legebiltzarrek muga handiak dituztela. Ezingo dugu goitik beherako estrategia independentista diseinatu baina unean uneko mugimenduei esker jendearen ikuspegia zizelkatu daiteke. Oraintxe bertan, gehiengo handi batek uste du, EAEn zein Nafarroan ondo bizi garela, ez dela aldaketarik behar, legebiltzarrek aski askatasun dutela. Hori da aldatu behar dena. Horrela soilik jarri daiteke zilegia legalaren gaintetik. Denbora beharko da eta ezin dugu pentsatu denbora tarte horretan jendartea uneoro mobilizatuta mantendu dezakegunik. Mobilizazioak pikoa harrapatzen duenean emandako urratsa sendotzea da gakoa, atzeraezin bihurtzea. Gradualismoarekin ez goazela inora aurpegiatuko didate baina jendarteek horrela funtzionatzen dute.

Aldebakartasuna. Azken aldiko ezker abertzalearen hitz magikoa.

Oraindik ez dugu asmatu aldebakartasuna zertan datzan azaltzen. Horregatik, oraingoz, daukagun indarra mentala da estrategikoa baino gehiago. Jende batek aldebiko eskemaren betaurrekoekin jarraitzen duenez, ezker abertzalearen irakurketa kritiko guztiak estatuari egindako kontzesiotzat dauzka. Irakurketa horiek herriari begira aztertuz gero, ostera, bestelakoak dira analisiak eta epaiak. Askapen mugimenduak urteak eman ditu galdera batzuei erantzun nahian, eta erantzunak bazituela uste zuenean, galderak aldatu dira. Naturala da 60ko hamarkadako zutabe ideologiko zenbait iraungita egotea. Nola eraikitzen eta deseraikitzen dira nazioak? Non sortzen da jendearen sen ona? Zein indar daukate komunikabideek? Horiek dira erantzun beharreko galderak, orain arte ezkerrek eztabaida ideologikoak beste plano batean kokatzen zirela uste izan badu ere. Podemosek argi frogatu du arrazoia baino zerbait gehiago behar dela jendea konbentzitzeko. Zuretzako ideien borroka lehen mailako auzia bada, borroka hori non gauzaten den detektatu behar duzu, eta pertsona bat Klaudio Landaren programara joateko prestatu behar bada, prestatu. Jendeak errealitatea beste modu batera ikus dezan zure diskurtsoa marko batzuetara egokitu behar da. Hori hala, orain ez daukagu marko egokirik.

Aldatu daitezke markoak?

Errealitatea bere horretan erakusteak ez duela piperrik balio jabetzea da markoa aldatzeko lehen baldintza. Bukatu da arrazoia daukagulako irabaziko dugula pentsatzea. Zein da Izquierda Unida eta Podemosen arteko funtsezko aldea? IU ezker-eskuin marko zaharrean mugitzen da "*oligarkia*" bezalako hitz gastatuekin, eta Podemosek goi eta behe markoa berreskuratu du "*casta*"-ren antzeko esaera freskoekin. Gauza berdintsua diote biek baina eguneroko marko eguneratu bat dauka batek, beste mende batekoa besteak. Hori da diferentzia. Podemosek ez du errealitatea borrokatu, errealitatea hor zegoen, agerikoa zen. Ezkerreko alderdi gehienek, ostera, uste dute jendeak ez diela botorik ematen ez direlako errealitateaz konturatzen. Horregatik dabilta etengabe datuak ematen, jendea gertatzen ari denaz jabetzean, eurengana hurbilduko delakoan. Ez dute ulertzen ez dela kontzientzia kontua. Jendeak bere markoa dauka eta errealitate gordinena erakutsi arren zure diskurtsoa ez bada marko horretan kabitzen jai daukazu.

Susmoa daukat ezker abertzaleak zerbait esaten duenero beste baten markoaren baitan esaten duela. Gaur EAJrean, bihar Podemosenean, etzi... Horrela ezin da. Goazen gure markoa sortzera. Ulertu ditzagun kontzeptuak borroka esparru bezala. Kontzeptuek adiera anitzak dituzte, errealitatea ez da bat eta bakarra.

Gurtzen ditugun ereduak zerikusia dute errealitatearekin?

Desfase izugarria dago benetan izatea gustatuko litzaigukeenaren eta benetan garenaren artean. Soziologia minimo bat behar dugu, sen ona aztertu, jendeak zertan gastatzen duen eta zer kontsumitzen duen ikertu. Eragin zuzena dauka euskal kulturarengan. Irakurle baino idazle gehiago dauzkagulako kexatzen gara, baina zer kontsumitzen du jendeak? Bideo-jokoak, pornoa, motorrak... Euskarak badu presentziarik alor horietan? Ez dugu euskara zikindu nahi, aldaketa sozialaren ideal guztiekin lotu nahi dugu, baina euskarak ere kontsumo joeretara makurtu beharko du. Bestela, euskaraz eskaintzen ez dena erdaraz kontsumituko da. Ezin dugu etengabe gure balore erromantiko eta zerutiarren hipokrisian bizi. Kontua ez da herri mugimenduak egiten duen oro ona dela eta erakundeetatik datorren guztia txarra. Frente sozial eta instituzionala eskutik joan ezean ez dago zereginik. Herri mugimenduak erakundeari bidea zelaitu behar dio, hark aldaketa ahalbidetu dezan. Esaterako, Gipuzkoan, atez ateko zabor bilketaren gaian, herri mugimenduak atez atekoaren aurkako oldar kontserbadoreari askoz modu sutsu eta masiboagoan egin behar zion aurre. Ez du balio bando berekoak izan eta behin erabaki-guneetara iristean elkarri mokoka edo bakoitza bere aldetik ibiltzeak.

“Elkarbizitza jokoan eta zu berriz bertso ttikietan...” kantatzen du Ruperrek.

Hainbeste urtetako borroka tragiko baten ondorioz, ezker abertzaleak oso identitate emozional fuertea sortu du. Oso zaila da identitate horren baitan krikikrakarik eragin gabe ezer aldatzea. “Borroka da bide bakarra!” oihukatzen pasa dituzunean urteak, justizia trantsizionalak nola ez dizu minik emango? Jendeak ez du debate ideologikotzat hartzen, bere identitatearen aurkako erasotzat baizik. Horregatik leporatzen dizu askapen mugimendua deuseztatzen saiatzea. Norbaiti bere mundua bere begien aurrean puskatzen diozunean alferrik esango diozu pragmatismoa behar dela. Ikuspegi mitiko horrek eraman du jendea borrokara, ez

pragmatismoak. Ikuspegi mitifikatu horrek, ostera, munstro bat sortu du eta oraingo debateak ez dira debate intelektualak, debate emozionalak baizik. Hortik dator ilusio falta orokorra. Ezker abertzalean, jende bat bere mundurik gabe gelditu da. Guztiontzat da berkokatze eta birziklatze aroa. Jende askok aldaketa barneratu eta aurrera egingo du eta beste asko hor geratuko dira betiko. Denbora kontua da.

Alderdi politikoek benetako parte-hartzea asimilatzea denbora kontua da?

Ez. Kataluniak ipurdi bistan utzi duen gure kultura politikoaren beste gaitz bat: Ez dakigu aurrez erabat definitu gabeko estrategia aurrera eramaten, ez gara bidera aurreikusi gabe ateratzen zaizkigunak kudeatzeko gai. Erabateko kontrolatu nahian oinarritzen dira gure alderdiak. Eurek uste dutena pentsatu ezean jendeak hanka sartuko duela konbentzitura bizi dira. Utzi jendeari hanka sartzen! Baina ez, nahiago dute botoak eta boto-emaileak eurenak direla sinesten segi. Horregatik larritzen dira jendeak hauteskunderen arabera bozkatzen duela konturatzen direnean. Nire ustez, alderdiek pozik hartu beharko lukete bozkaren likidotasuna. Bakoitzaren proiektuak jendartearen seduzitzeko duen gaitasunean kokatzen du borroka politikoa. Blokeak erabat definituta daudenean, askoz mugatuagoa da zure borroka esparrua.

Mehatxuak aukera izan daitezkeela, alegia.

Fidelitate berriak sortzeko aukera paregabeak eskaintzen dituen aroa bizi dugu. Fidelitateak ez dira betiko izaten, baina emozionalki zein arrazionalki arrastoa uzten dute zugar. Gainera, jendartearen ezin da, orain bezala, etengabe lur-zorurik gabe ibili. Lehenago edo beranduago, ziur naiz xake taula berriz definituko dela eta taula berrian ere nazioak pisua izaten segiko duela. Oso garrantzitsua izango da datozen urteetan garatzen dugun gure nazioaren kontakizuna. Ez da kasualitatea Joseba Sarrionandia zapalkuntza ikuspegi batetik denak integratzeko egiten ari den ahalegina.

Gure Esku Dago

“Etiketa politikoa kenduta mugimendua are gehiago politizatzen dugulakoan nago. Horixe da hegemonia, zurea denek naturalizat hartzea. Hori hala, Gure Esku Dagok malguagoa izan behar luke. Joera handiegia daukagu herri guztietan eskema berbera errepikatzeko. Nahi ala ez, ezker abertzaleko eta EAJko jendeari egiten zaio keinu. Zer da helburua, ordea, abertzaleak batzea ala abertzaleak ez direnak erakartzea? Nor konbentzitu nahi dugu, konbentzituta daudenak ala ez daudenak?”

Andoni Olariaga (Berriz, 1984)

Filosofian lizentziatua EHUn. Amerikar pragmatismoaren pentsamendutik abiatuta erlatibismoaren azterketari buruzko tesia bukatzen dabil, egun. Lapiko kritikoko kide, hedabideetako kolaboratzaile eta Jakin taldeko partaide da, besteak beste. *Modernitatearen auziaz* (Jakín, 2009) idatzi zuen Jon Jimenezekin batera, eta *Independentzia helburu* (Txalaparta, 2015) saiakera liburuan parte hartu du.